

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure aliantza nagusia Jose Miguel Barandiaran Institutua bera izango zen, bertan kokatuko baita gure proiektua eta bertako ikasle zein langileek partehartuko baitute. Ikastetxea bi eraikinetan banatuta dago eta hasiera batean proiektua Leioako Sarriena auzoan kokatua dagoen atalean martxan jarriko dugu, Barandiaran Goikoan. Bertan 300 ikasle inguru daude 4DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketarako bi zikloen artean. Irakasle kopuruari dagokionez 40 irakasle dira bertan lan egiten dutenak.


Ikastetxearekin izango dugun erlazio hau hainbat bide desberdinetan emango da.

- Zuzendaritza: proiektu honen funtsezko zutabeetako bat zuzendaritzarekin batera egingo genukeen lan bateratua da; izan ere, haiek emango lizkigukete gure ideia aurrera ateratzeko beharrezko baliabideak; hau da, baimenak emango lizkiguke eta oniritzia emango liguke baratzeko hori prestatzen hasteko. Horrela, zuzendaritzaren eta ikasleen arteko harremana hobetuko litzateke, batera lan egingo baikenuke helburu komun bat lortzeko.
- Proiektuak: gure ortuko helburuekin bat egiten duten proiektuen arduradunekin harremanetan jarri eta lankidetzan arituko gara, eta ikusitakoaren arabera, hurrengoak dira nagusiki:


Hizkuntza Normalkuntza	Euskara sustatuko baitugu http://www.institutobarandiaran.com/hizkuntza-normalkuntza.asp
Agenda 30	Garapen Jasangarriko Helburu batzuk lantzen baititugu http://www.institutobarandiaran.com/agenda-30.asp

Lankidetzaren hau ezinbesteko da proiektu hauek behar genituzkeen diru sarrerak eskainiko zizkigutelako horrela behar ditugun lehengaiak eta materialak lortzen ahalbidetuko dituglako. Horretaz aparte, gure proiektua beheko institutuan ere landuz gero, Barandiaran Elkarlaneko eta HIPIko kideek lan egin genezake, esparru honetan inklusioa sustatzeko elkarrekintza honen bidez.

- Ikasle eta irakasle bolondresak. Proiektuaren ideia egingarri zen edo ez jakiteko ikasturtearen hasieran merkatu ikerketa bat egi genuen eta jasotako emaitzetan parte-hartzaileen %48.9k esan zuten proiektu honetan parte hartuko luketela eta irasleen %33.3a ere laguntzeko prest agertu zen.



- Ikasle taldeen eginkizuna materialak eta haziak antolatzen laguntzea, barazkiak eta frutak biltzea, ureztatu eta landatzea, lurra prestatzea, baratzea garbitzea eta azpiegiturak sortzea izango da nagisiki eta prest agertu ziren asteko bost egunetan bolondres lanetan aritzeko.



Horregatik dira hain garrantzitsuak boluntarioak gure proiektuan. Horiei esker, baratze bat sor dezakegu gizarte-harremanetan laguntzeko eta, era berean, ingurumenari laguntzeko, jendea kontratatzeko eta lana erraztuko diguten makinak erosteko diru gehiago gastatu beharrik gabe.

Ikastetxetik kanpo, Udaletxearekin harremanak mantenduko ditugu, suertatu ahal diren dirulaguntzak eta lankidetzak aukeren berri izateko eta hauei probetxua ateratzeko. Gure proiektuari buruzko lehenengo elkarrizketak izan ditugu Udaletxeko kideekin eta alkatearekin, eta gure ideia beso irekiekin hartu dute.

Bukatzeko esan, diru iturrien atalean azalduta dagoen bezala, bai Ostalaritza eskola zein ikastetxetik gertu dagoen Kurtze jatetxearekin erlazioa izango dugula ekoizpen altuko momentuetan gure bezeroak izango direlako.

